

# ANTON LANDAJUELA

## (G. B.)

### EUSKERA MAITE

Il yaku Anton gure lagun eta euskaltzale zintzoa, zintzorik ba'da. Gizaki bakotxak, adiñekoa izanik batez be, bizitzan zear eratutako barru-izaera bat lortzen dau, amesak eta elburuak sendo sustraituta dagozala.

\* \* \*

### GUDA - ALDIAN

Landajuela ta Barrenetxea'tar Andoni, Arratia'ko Igo-ren 1914'ko Gabonilla'ren 4'ganean jaiotako zan, eta sendi euskaldun jatorreko babesean urteak igaro yakozan.

1936'ko matxinadeak, soldaduzkan jarduten ebalu erbestean artu eban.

Txapelgorriekin Euzkadi garaitzera bialdu eban. Anton'ek baiña, ezin egikean jasan beretarren aurka burrukan egitea, eta beti iges egiteko zain egoan.

1936'ko Dagonilla'ren 19'ganean, Endarlatza ta Iranzu arteko Arlaiz mendian zala, gaua ustiatuz otadi ta trokantan zear iges egin eta noizbait anaiakana eldu zan.

\* \* \*

### ZAURITUTA

Bereala Ibaizabal batalioian gudari sartu zan. Luzaro barik, baiña, gudari bikaiña zala erakutsi eban, eta «Rebellion de la Sai» batalioia eratu zanean, onetan teniente izendatu eban.

Eman, ondo merezi ebalu emondako zeregin barria erakutsi eta olan bere erriaren alde ekin eban, eta iskillu —indarretan askozaz aaltsuagoa zan etsaiari jarkiten eutsola apurka-apurka atzera egiñaz, noizbait Artxanda'n aurkitu zan.

\* \* \*

### ERIOZARA EPAITUA

Bilbao'ko mendi onetan burruka izugarria izan zan, eta etsaiari aurre egiten eutsola, Anton zaurituta gertatu zan.

Artxanda'tik atara eta Santander'ko Cicero erriko eritigira eroan eban.

Eman osatzeko zorian zala, italiarrak sartu ta Santoña'n baitu eban.

Andik laster Dueso'ra eroan eta guda —auzitegian eriotz-epaia emon eutsan.

Emendik idazki bat bialdu eutsan amari auxe iñotsola: «Agur amatxu. Ez dakit noiz arte; epaia beteko ba'lituz goiko zerurarte».

\* \* \*

### ESPETXEAN

Arrezkero, Dueso'ko eriotz-epaituen sailan egon zan, Ajuriagerra, Azkue, eta beste askorekin.

Bere egoera berezia zan. Beste aldetik iges egiña zan ezkerre, erraza zan baten batek salatu egian, eta au gerta-tzekotan, bereala eriotz-epaia beteko zan.

Eman egoala, Azkue beste amabostekin Urrilla'ren 15'ganean su-iskilloz garbitua izan zan. Eta gero beste ilketak jazo ziran.

Izugarria zan geletan giltzapetuen egoera larria, gabean gelak zabaltzen zirala an-emen, dei egiñak eriotzara eroateko.

\* \* \*

### JAZOKIZUN NEGARGARRIA

Azaltzekoa da gudari bateri jazo yakona.

Mutil au zaurituta egoan zorrea etenbake eriola, min jasangaitzetan bizi zala.

Oikoa zan España'ko ikurriña goizalde orotan jasotea eusko gudari-talde bat beartua zala ori ikusteko.

Egun baten, jai amaituta, gudari zuritua aurreratu zan oiuka: «Gora Euzkadi, Viva la Republica!» Urrengo goizean, ikurrin espainarraren jasotea amaituta, bere gudari-kideen aurrean tiroz il egin eban.

\* \* \*

### ZAMALARI

Urtea amaitu barik, Bilbao'ko Larrinaga espetxera eriotz-epaituekin aldatu eban.

Eman bai aldi larriak! Gaba elduta, gela-arteko igarobidean argiak iziotzen ziran, eta auskeratuak ataraten ziran Derio'n erailteko. Beste batzuk espetxean bertan urkatuak (garrote vil) ziran.

Gabeko ataraldia amaituta, igarobideetako argiak amatau egiten ziran. Anton atezulotik zain egoan, eta orduan auxe esaten eban: «Onetsi bedi Jaungoikoa».

Egoera onetan egunak eta illebeteak igaro ziran, eta 1938'ko Garagarrilla'ren 25'ganean Burgos'ko espetxera bialdu eban, eta eman zorritz eta imitez janda, goseteari jarraipena emon eutsan.

Noizbait bost urteko espetxaldia jasanda gero, etxera biurtu zan. Gero, Bilbao'ko portuan zamalari sartu zan.

\* \* \*

### AGUR ANTON

Anton joan yaku, abertzale zintzo ta benetako euskaltzale beti iraun ebana.

Esatera batek diño, ildakoek aberria egiten dabela. Olan izango da, urrean, baiña gure biotzak samiñez beterik aurkitzen dira.

Agur Anton, eta gero arte.

ZUBIRI'tar IÑAKI